

Aurrera atera dugun proiektuak integrazioarekin bat egingo du inklusibitatearen printzipioetan oinarrituz. Badakigu inklusibitatea gaur egun ez dela ikusten, eta gure proiektua hortan datza, hain zuzen ere, inklusibitatea sustatzea eta bisibilizatzea.

Begi bistakoa da gaur egun erabiltzen den hezkuntza metodoa, hezkuntza tradizionala dela. Hezkuntza tradizionala beharrezkoa iruditzen zaigu baina oso garrantzitsua da baita ikastetxe alternatiboetan egiten diren ekintza eta jardueretatik ikastea.

Hezkuntza alternatiboak hainbat gai jorratzen ditu, eta horien artean guretzako oinarria izango den alorra Natura da.

Gure esperientzian oinarrituz, hezkuntza tradizionalan ematen diren hainbat ekintza kritikatu nahi ditugu eta beste alternatiba batzuk eskeini. Hezkuntza tradizionalan material ugari xahutzen dira eta ez dira ondo aprobetxatzen, orri asko inprimatzen dira eta kalte handia egiten dio naturari. Laburbilduz, ez dute munduaren gaur egungo egoera kontuan hartzen eta guretzako oso garrantzitsua da gure Lurra zaintzea. Hortik abiatuta garrantzitsua ikusten dugu oinarrizko materiala erabiltzea eta birziklatzea.

Beste alde batetik, gure zentroa baserri batean kokatuko denez, hurrek animaliekin harremantzeko eta haiekin batera ikasteko aukera izango dute. Gainera, baratze bat ere egongo da baserrian, eta bertan barazkiak nola landatu, zaindu, ezberdindu... ikasiko dugu. Horrelako aukerak ez dira hezkuntza arloan ikusten eta zerbitzu berri eta interesgarria iruditzen zaigu beste ikasketa mota eta prozesu bat burutzen delako.

Horrez gain, hezkuntza tradizionalak oso finkatuta dauka bere heziketa mota. Ondoren aipatuko ditugu ezaugarri garrantzitsuenak Ezaugarri ahuei erreparatuz argi dago ez dela pertsona bakoitzaren beharretara egokitzen eta hori aldatzeko helburuarekin gatoz.

- Hezkuntza tradizionala

- Etorkizuneko prestakuntza azkar eta masiboa emateko beharretik sortzen da, ahalik eta lasterren jarduera profesionala garatu ahal izateko.
- Moraltasuna eta garaiko arauak transmititzeko helburua zuen.
- Azterketetan lortutako kalifikazioetan bakarrik oinarritu eta bideratzen da.
- Ikasle eta irakaslearen rola oso finkatuta daude une oro.

- Hezkuntza alternatiboa

- Familiak adingabearen hezkuntza-prozesuaren parte dira.
- Lankidetzaren balio gisa irakasten da, lehiaren ordez.
- Natura erabiltzen da haurren ezagutza eta sortzeko ahalmena handitzeko.

Bereizketa hau argi izan ondoren, erraz bereiztuko da zer nolako hezkuntza izango dugun *Sustraiak Zentro Alternatiboan*. Naturari merezi duen balioa emateaz gain, familia, haurren hezkuntza-prozesuaren parte bilakatuko da. Horretarako, gurasoek aukera izango dute eskolan gelditzeko eta proiektuaren esperientziak elkarrekin bizitzeko. Era horretan, haurrak gurekiko izango duten lehen kontaktua goxoa eta lasaia izango da.

Hasieran aipatutako ideia nagusietako bat inklusibitatea sustatzea izan denez, kontuan izango ditugun printzipio batzuk txertatuko ditugu: Naturari merezi duen balioa emateaz gain.

1. Deszentralizazioaren printzipioa, behar diren baliabide desberdinak behar dituen haurrari ematean datza, horrela konfiantzaren printzipioa barneratuko du.
2. Integrazio-prozesua aplikatzeko talde-ikuspegi baten printzipioa beharrezkoa da. Integrazio-prozesuan inplikaturako profesionalek elkarrekin lan egiten dute taldean, haien koherentzia eta osotasuna bermatuz.
3. Desgaitasuna duen haur bati laguntza pedagogiko berezia emateko paradigma eta teknologia prozesu pedagogiko holistiko batean txertatzeko printzipioa.
4. Lankidetzaren printzipioa irakasgai komun baten barruan bermatzea. Haur bakoitzak bere gaitasunen mugen barruan ikasgai komun bat ikasten du, ikasle guztiekin batera, eta irakasgaiaren ezagutza kolektiboari ematen dio.
5. Barne-bereizketaren printzipioak, helburuak, edukiak, me lotodoak eta bitartekoak bereizteak bermatzen ditu. Kontuan izanik pertsonak ardatz duen ikaskuntza autogidatua; hau da, haurren garapenaren logikarekin bat datorrena.
6. Borondatezkotasun-printzipioan, integrazio-prozesuan eta hezkuntza inklusiboan parte hartzen duten guztiek, elkarri eragiten diote eta lankidetzan aritzen dira beren borondatez.

Beste alde batetik, hezkuntza tradizionalak dituen hutsuneak betetzeko asmoz, konstruktibismoan oinarrituko gara. Honen funtsezko ideiak hurrengoak dira:

1. Ikaskuntza prozesu aktibo bat da, non ikasleak bere aurreko ezagutzetan oinarritutako ideia edo kontzeptu berriak eraikitzen dituen. Garrantzitsuena prozesua da, ez emaitza.
2. Ikasleak informazioa hautatu eta eraldatzen du, hipotesiak eraikitzen dituen heinean. Bere proposamenak kontuan hartzen dira, ez da soilik irakasleak dioena.
3. Errealitatearen azterketa aurrera eramaten da, ikasitakoa praktikan jarritz. Horrela, bakoitzak errealitatearen errepresentazio propioa eraikitzen du.
4. Ikasleak gauzak "nola" diren ikasten du (ez bakarrik "zer").